

Lankide estimatua:

Gure Bazkunaren ekimenez, elkargokideen eskaerei erantzunez eta familia eta lana bateratzeko asmoz, UDAKO LUDOTEKA esperientzia berria martxan jarri behar dugu 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat (1997 eta 2005 bitartean jaioak) bost astez (ekainaren 29tik uztailaren 30era).

Aste horietan, ludoteka-zerbitzua Abokatuen Bazkunaren egoitzan egingo da (Uribitarteko aldapak), 9etatik 14etara. Zerbitzua arlo horretan espezializatutako erakunde batek egingo du, SUSPERGINTZA ELKARTEAk, hogeita hamar urtetik gorako gizarte-heziketako esperientzia baitu.

Haurrei bideratutako eskaintzan, ariketa fisikoak, trebakuntza-, lankidetz-, elkarbizitza-jarduerak, partaidetza-espirtua garatzea eta bestelako hezkuntza-jarduerak daude, Bazkunean bertan edo Bazkunaren inguruan egingo diren irteeretan. Haurrak goizeko 9etatik 10etara utziko dira ludotekan, eta 13etatik 14etara jasoko dira.

Bazkunak lokalak eta azpiegiturak uzten ditu, zerbitzuaren prezioa al bait merkeena izan dadin. Hori dela eta, 62 euro aste eta haur bakoitzeko finkatu da.

Bazkunaren egitura kontuan hartuta, 60 leku daude, eta proiektua bideragarria izateko gutxienez 20 hurrek hartu behar dute parte. Eskaerak lekuak baino gehiago balira, eskatzaileen artean zozketa egingo litzateke. Neba-arrebek parte hartu nahi badute, eskaera bakar bat egin behar dute, eta zozketan zortea izanez gero, biek lortuko dute lekua.

Eskaerak egiteko epea maiatzaren 11tik 21era da, eta horretarako, erantsitako izen-emate orria bete behar da. Orri horretan, haurrak ludotekan zein astetan parte hartzea nahi duzun adierazi dezakezu. Izena emateko orria Bazkunera bidali behar da, faxez (94 435 62 01) edo posta elektronikoz (administracion@icasv-bilbao.com). Eskaera guztiak jaso ondoren, maiatzaren 29a baino lehen, ekimen honetan parte hartuko duten haurren izenak jakinaraziko dira, eta ordezkoen zerrenda argitaratuko da.

SUSPERGINTZAK, jarduera abiatu aurretik, gurasoekin bilera bat egingo du esperientziaren antolaketa eta programazioa zehatz azaltzeko.

Esperientzia honetatik kasuan kasuko ondorioak aterako ditugu zerbitzua zabaldu edo egokitzeko eta norabide berean interesgarriak izan daitezkeen ekimen berriak egiteko.

Informazio gehiago, egitarauan eta izena emateko buletinan.

Ekimen berri hau zure interesekoa izango delakoan, har ezazu agur bero bat,

JAVIER BOLADO
IDAZKARIA